

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA OSATZEN DUTEN UDALERRIETAN ERABILITAKO ARROPA ETA BESTELAKO EHUNKIAK BEREIZ JASO ETA KUDEATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ESKAKIZUN TEKNIKOEN ORRIAK

1. KONTRATUAREN OBJEKTUA

Kontratu honen objektua da Urola Kostako Udal Elkarteak osatzen duten udalerrietan kalean jarritako edukiontzien bidez jasotzen diren erabilitako arropa eta bestelako ehunkiak (arropa, oinetakoak, osagarriak, mantak, izarak eta abar) bereiz bildu eta kudeatzea.

2. LURRALDE-EREMUA ETA EDUKIONTZIAK

Zerbitzua eskainiko da Urola Kostako Udal Elkarteak osatzen duten 5 udalerrietan: Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiak.

Une honetan 5 udalerrietan 25 edukiontzi daude jarrita, honako helbide hauetan:

Udalerria	Edukiontzi-kopurua	Edukiontzia non
AIA	2	Anbulategia Garbigunea
GETARIA	3	Balentiaga kalea Frontoi atzea A.Agirre lehendakaria plaza
ORIO	4	Anibarko portua Arrantzale-Abeslari Iturbide-Nagusia Kaia kalea
ZARAUTZ	10	Allemendi 2, Masusta jatetxea Altzola kalea, Anaiak taberna Garbigunea Zuberoa kalea, Kiroldegia Araba kalea, Maxi Eroski Araba kalea, Maxi Eroski San Frantzisko kalea, Frontoi txikia Nafarroa kalea, Erramu-Iturrin Pilartxo Enea Mitxelena kalea, Caritas
ZUMAIA	6	Alai auzoa Amaia plaza Basadi auzategia Garbigunea Oikia Otezuri
GUZTIRA	25	

3. KUDEATU BEHARREKO KOPURUAK

2013an arropa eta ehunkiak biltzeko Urola Kostako Udal Elkartearen zerbitzuak 175.422 kg jaso zituen.

Nolanahi ere, aurrerantzean kudeatu beharko diren kopuruak erabiltzaileek kaleko edukiontzietan uzten duten arropa eta ehunki kopuruaren arabera izango da, edo Udal Elkarteak jartzen dituen beste zerbitzu batzuen bidez biltzen direnak.

4. DERRIGORREZKO ZERBITZUAK

Jarraian adierazten diren zerbitzuak DERRIGORREZKO ZERBITZUAK dira:

- a) Urola Kostako Udal Elkarteak osatzen duten udalerrietan kalean jarritako edukiontzien bidez jasotzen diren erabilitako arropa eta bestelako ehunkiak (arropa, oinetakoak, osagarriak, mantak, izarak eta abar) bereiz biltzea.

Edukiontziak husteko maiztasunari buruz esleipendunak egiten duen proposamena edozein izanik ere, Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek eskatzen badute, esleipendunaren betebeharra izango da husteko datatik hurrengora dagoen epearen barruan edukieraren %75era iristen diren edukiontziak hustea. Horrek ez dio kontratuaren prezioari eragingo.

- b) Bildutako arropa eta bestelako ehunkiak ehunen prozesaketa eta berreskuraketako zentro batean entregatzea.
- c) Prozesaketa eta berreskuraketa (berrerabilpena, birziklapena..) egitea eta horrelako lanetan sortutako ehunak eta balorizatu ez daitezkeen bestelako hondakinak (errefusa) behar bezala kudeatzea, baimendutako kudeatzaileen bidez alegia.
- d) Edukiontzi berriak jartzea, Udal Elkarteak esleipendunaren eskura jartzen dituenak nahiz kontratuak irauten duen epearen barruan esleipendunak jarri behar dituenak.
- e) Kalean jarrita dauden edukiontziak egokitzea bilketa zerbitzu berrirako. Esleipendunari dagokio, beharrezkoa baldin bada, edukiontzietan jarrita dauden itsasgarri eta pegatinak kendu eta edukiontziak zerbitzu berrirako egokitzea (margotu, errotulu, itsasgarri eta bestelakoak jarri...).
- f) Edukiontziak erretiratu eta beste batzuk jartzea (Udal Elkarteak emandakoak nahiz esleipendunak jarritakoak), edukiontzia erabili ezinik baldin badago edo bestelako arrazoiren batengatik.
- g) Edukiontziak mugitu eta lekuz aldatzea, zerbitzuak horrela eskatzen duelako, lan edo obregatik, gizarte ekitaldiengatik eta abar.
- h) Edukiontziak konpontzea honakoak gertatzen direnean: matxurak, kolpeak, ekintza bandalikoetan edukiontziak erretzea, edo edukiontzien egileari egotz ez dakioken bestelako edozein akats izatea. Fabrikazioko akatsen bat baldin badu, egileak hartuko du horren erantzukizuna dagozkion konponketak egiteko, hornigaiaren garantia epearen barruan.
- i) Esleipenduna da edukiontzien hirugarrenei eragindako kalteen erantzulea, trafiko istripuengatik, haizeak edukiontziak mugitu dituelako nahiz bestelako arrazoengatik.

j) Edukiontzien mantentze eta garbiketa lanak gutxienez 2 hilean behin egingo dira.

Nolanahi ere den, Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek eskatuz gero, garbitu aldi batetik besterako tartean nabarmen zikinak dauden edukiontziak garbitu egingo ditu esleipendunak, eta horrek ez du inola ere esleitzeko prezioa aldatuko.

Kontratuaren azken hilabetean kontratu jabeak edukiontzi guztiak sakon garbituko ditu, eta garbi eta funtzionatzeko era egokian utziko ditu. Horretarako, zikinkeria kentzeaz gain, pintada, itsasgarri, kartel eta edukiontzinari itsatsitako gainerako osagai arrotz guztiak kenduko ditu.

5. BILTZEKO SISTEMA

Erabiltzaileek ehunkiak eta horien baliokideak ordutegi mugarik gabe utzi ahal izango dituzte kalean bereziki jarritako edukiontzi metalikoetan, asteko egun guztietan.

Lehiatzaileek edukiontziak husteko modua eta maiztasuna zehaztu behar dute. Maiztasun horien kopuru-proposamena ez da gehieneko kopurutzat hartuko eta kontratu jabeak hustu egin beharko du edukiontzia beteta edo betetzear dagoenean.

Kontratua indarrean dagoen epearen barruan edukiontzi gehiago jartzen badira, kontratu jabeak edukiontzi horiek ere hustu eta bildu egin beharko ditu, eta horrek ez du esleitzeko prezioa aldaraziko.

Kontratu jabeak edukiontzietan utzitako hondakin guztiak bildu behar ditu, baita izaera berekoak diren eta edukiontzia ondoan utzitako hondakinak ere. Bildu ondoren biltzeko lekua garbi eta txukun utziko du eta edukiontziak zuzen jarrita.

Arropa eta ehunkiak biltzen dituen ibilgailuak jasotako materiala pisatu egin behar du, Udal Elkarteak Urteta zabortegean duen baskulan edo Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek adierazitako beste baskularen batean.

Bilketa egiteko eguna jaieguna baldin bada, bilketa Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek finkatutako datan egingo da.

Hondakinak biltzeko eta edukiontziak konpontzeko, mantentzeko eta garbitzeko lanak tentuz egingo dira, hondakinik isuri gabe eta ibilgailuen eta oinezkoen joan-etorria oztopatu gabe.

Kontratuaren jabeak bildutako hondakinen artean balioa duten objektuak aurkitzen baditu, Udal Elkartearen esku utziko ditu, beren jabe direla egiaztatzen dutenei itzultzeko.

Bildutako materiala kontratu jabeak lizitazio-eskaintzan proposatzen duen sailkapen eta manipulazio plantara eraman eta han hustuko du. Debekatuta dago materiala beste norabait eraman eta hustea, Udal Elkarteak berariaz baimena eman ezean.

Lehiatzaileek eskaintzan biltzeko ordutegia proposatuko dute.

Bilketa lanen eguneroko parte egingo da eta, gutxienez, honakoak adieraziko ditu:

a) Egun bakoitzean hustutako edukiontzien kopurua eta kokapena.

- b) Bilketa-eguna.
- c) Bilketa-lanak hasteko eta amaitzeko ordua.
- d) Egindako kilometroak.
- e) Edukiontzia bakoitzaren betetze-maila.
- f) Ibilbide bakoitzean jasotako kopuru osoa (kilotan). Ez da zenbatuko, inola ere, Urola Kosta eskualdetik kanpo jasotakoa.
- g) Egunean zehar izandako gorabeherak.
- h) Lanak egiten esleipendunak izandako akats edo atzemandako anomaliak.
- i) Zerbitzua hobetzeko ohar eta iradokizunak.

Eguneko parte hurrengo goizean bidaliko da Udal Elkartera, pisatzeko txartelak erantsita.

Lehiatzaileek sistema azkar eta arinak aurreikusi behar dituzte Udal Elkarteak eskatzen dituen datu guztiak garaiz eman ahal izateko. Sistema eta eguneko parteak euskarri informatikoan jakinaraziko dira, Urola Kostako Udal Elkarteak eskura dituen aplikazio informatikoekin bateragarri direnetan.

Zerbitzuak kontrolatu eta jarraipena egiteko esleipendunak dituen sistema eta gailuak Urola Kostako Udal Elkarteak zerbitzuak kontrolatzeko dituen sistema informatikoetara egokitzeko gastuak esleipendunari dagozkio.

Eguneko lanen jakinarazpenak eta bestelako informazio eta dokumentuak (fakturak, txostenak...) euskaraz helaraziko dizkio esleipendunak Udal Elkarteari.

Dena dela, Udal Elkarteak euskaraz eta gaztelaniaz eskatzen baditu bi hizkuntzetan aurkeztuko ditu esleipendunak. Bestalde, esleipendunak Urola Kostako Udal Elkarteko zerbitzu tekniko eta administratiboarekin izan beharreko ahozko komunikazioak (telefono bidezko harremanak, lan-bilerak...) euskaraz izango dira, ahal dela.

Esleipendunak baldintzen orrion objektu den kontratuari atxikitako langileek paragrafo honetan ezarritakoa betetzeko behar besteko hizkuntza gaitasunik ez baldin badute, Udal Elkarteak ordezkatzeko eskatu ahal izango du.

6. BITARTEKO MATERIALAK

Kontratu jabeak zerbitzua behar bezala eskaintzeko behar diren bitarteko material guztiak jarriko ditu, edukiontzia izan ezik, edukiontzia Udal Elkarteak eskuratuko baitizkio.

Bide publikoan lan egingo duten ibilgailu guztiek arauzko eta derrigorrezko diren segurtasun sistemak izango dituzte. Ibilgailu horiek erraz ikusteko modukoak izango dira eta, horretarako eta oinezko zein ibilgailuek izan dezaketen arriskua saihesteko, seinaleztapen sistemak izango dituzte.

Kontratu jabeak zerbitzuari atxikitako ibilgailu eta makinak mantentzeko plana zehaztuta izan behar du. Halaber, ordezkotako bitartekoak izango ditu (kamioiak edo bestelakoak), matxura edo bestelako gorabeherak gertatuta ere zerbitzua ezarritako baldintzen arabera eskaintzeko.

Lehiatzaileek mantentze lanak egiteko aurreikusitako plana eta ordezkotako bitartekoen zerrenda aurkeztu behar dute.

Lizitatzailuek, bitarteko material guztiak (ibilgailuak, makineria, erabili beharreko erreminta berezi guztiak, etab.) deskribatuko dituzte aurkeztu behar duten egitasmoan, beharrezkotzat jotzen diren datuak erantsiz, ahalik eta ezagupen onena lortzeko.

7. LANGILEAK

Lehiatzaileek zerbitzua eraginkortasunez eskaintzeko behar diren langileen aurreikuspena aurkeztu behar dute. Horrekin batera, gaixotasun-bajak, baimenak, oporrak eta bestelako egoeretan langileak ordezkatzeko proposamena ere aurkeztu behar dute, gorabehera horiek kontratatutako zerbitzua behar bezala eskaintzea ez oztopatzeko.

Lehiatzaileak zehazten duen langile-multzoa zerbitzua eskaintzeko kontratu jabeak eskura izan beharko duen gutxienekoa izango da. Dena dela, esleipendunak langile talde hori handitu egin beharko du beharrezkoa bada, zerbitzua behar bezala burutzea bermatzeko, kontratuaren alderdi guztietan, eta horrek ez du esleitzeko prezioa igotzerik ekarriko.

Kontratu jabeak langile horien garbitasuna, txukuntasuna eta janzkera uniformeak zainduko du eta bera izango da horren erantzule, baita langile horiek herritar eta erabiltzaileekin izaten duten jarrera txar eta begirunerik ezaren erantzule ere.

Urola Kostako Udal Elkarteak ez du inolako lotura juridikorik, lan-loturarik edo bestelakorik edukiko kontratistaren pertsonalarekin, ez kontratuak indarrean dagoen bitartean ezta amaitutakoan ere.

Kontratu honek eragindako betebeharrak, kalte-ordainak eta erantzukizunak kontratistaren kontura izango dira.

Kontratuaren jabeak lan arloan, gizarte-segurantza arloan eta laneko segurtasun eta garbitasun arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzeko obligazioa du. Beteko ez balira Udal Elkarteak erantzukizunetik salbuetsita egongo da.

Biltzeko lanak egiten dituzten langileek komunikazio sistemaren bat izan behar dute (telefono mugikorra edo antzekoa) Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek beraiekin harremanetan jartzeko bidea izan dezaten uneoro.

Lehiatzaileek honako alderdiak zehaztuko dituzte beren langileei buruz:

- a) Prestakuntza-maila.
- b) Egin behar duten lana.
- c) Egin beharreko lan-orduak.
- d) Lansaria.
- e) Kontratu-mota eta kontratuaren iraupena.
- f) Denbora unitatearen urteko unitate kostua.

8. MATERIALEN KUDEAKETA

Bildutako materiala esleipendunak kudeatuko du, ingurumen irizpide egokiekin bat etorritik, 22/2011 Legeak (hondakinei eta kutsatutako lurri buruzkoak) zehazten dituen lehentasun-mailak kontuan hartuta. Ehunkiei eta horien baliokideei buruz ari garenez, kontratu honen esparruan honakoa da bete behar den lehentasunen hurrenkera:

- a) Arropa edo osagarriak berrerabili. Adibidez, bigarren eskuko arropa saltzen duten saltokietara bideratu, hirugarren munduko herrialdeetara bidali edo antzekoak.
- b) Materialak birziklatu. Adibidez, garbiketako trapeak egiteko, betetzeko material gisa erabiltzeko eta antzekoetarako.
- c) Energia balorizazioa.

- d) Aprobetxatu ezin dena zabortegian ezabatu. Laugarren hau azken urratsa da, aurrekoak egin ezin direnean erabili behar dena.

Eskaintzak zehatz-mehatz adierazi behar du bildutako materialak **nora bideratuko diren eta zer nolako prozesua izango duten** (hustu, hautatu, higienizatu, plantxatu, sailkatu eta abar).

Zehaztu egingo da, baita ere, kudeaketa era bakoitzera kopuru osoaren zer ehuneko bideratuko den. Amaitzeko, zehaztu egingo dira sailkatzeko eta manipulatzeko plantak dituen instalazio eta makinak.

Bildutako materialaren zati bat bakarka salduko bada, lehiatzaileak zehaztu egin behar du zein enpresari salduko dion eta enpresa horrek ehunki hondakinei zer nolako tratamendua emango dien (materialak entregatzeko ziurtagiri edo eta egiaztagiria ere sartuko dira).

9. ZERBITZUA KUDEATZEKO EGITASMOA

Lehiatzaileek Udal Elkarteari zerbitzua kudeatzeko egitasmoa aurkeztuko diote. Honako alderdiak jorratuko ditu egitasmo horrek, gutxienez:

- a) Bilketa egutegia: argi eta garbi adieraziko dira bilketa egunak, zerbitzua jasotzen duten eremuak eta zerbitzua eskaintzeko hasierako eta amaierako orduak.
- b) Hondakinak biltzeko ibilbidearen edo ibilbideen zerrenda, behar bezala arrazoituta. Ibilbide bakoitzean hustuko lirategien edukiontzien aurreikuspena zehaztuko da, bilduko litzategien ehunkeen kopuruaren aurreikuspena, sailkatzeko eta prozesatzeko plantara egingo lirategien joan-etorrien kopurua eta edukiontzia hustu eta sailkapen plantara garraiatzeko biltzaileek emango luketen batez besteko denbora.
- c) Biltzeko ekipoa, lantaldea eta materialak.
- d) Edukiontzia garbitu eta desinfektatzeko plana.
- e) Edukiontzia mantentzeko prebentzio plana.
- f) Edukiontzia garbitu eta mantentzeko ekipoa eta sistemak, lantaldeak eta erabili beharreko materialak.
- g) Udal Elkartearen eta esleipendunaren arteko komunikazio-sistema.
- h) Azterketa ekonomiko zehatza, behar bezala xehatua: langileen unitate kostuak eta zerbitzuan erabilitako bitarteko materialen unitate kostuak.
- i) Esleipendunak hornituko dituen edukiontzien unitate kostua (eskualdean jarrita dauden edukiontzi motara egokituta).
- j) Bildutako materialak nora bideratu diren (ehunekotan adierazita) eta zer nolako prozesua izango duten.
- k) Zerbitzua hobeto deskribatzeko egoki irizitako bestelako datuak.

Edukien zerrenda hori ez da mugatzailea, eta Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek zabaldu eta osatu egin ahal izango dute zerbitzua definitzeko beharrezkoa dela irizten badiote.

EGINBIDEA:

Eginbidea, nik, Urola Kostako Udal Elkarteko idazkari-kontuhartzaileak egina, jasota uzteko eskakizun teknikoaren orri hauek Udal Elkarteko lehendakariak onartu zituela, 2014ko maiatzaren 26ko 14/00050 zenbakiko ebazpenaren bidez.

Zarautzen, 2014ko maiatzaren 26an